

Erriberriko Antzerki Jaialdia

2021eko
uztailaren 16tik
abuztuaren 1era



ANTZERKI-POETIKA DEIALDIA

Antolatzaileak:

#KulturaSeguruaDa
#KulturaArnastu

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



FUNDACION
BALUARTE
FUNDAZIOA

cultura
navarra.es

AYUNTAMIENTO
DE OLITE
ERRIBERRIKO
UDALA

Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala

AYUNTAMIENTO
DE BEIRE

Testu editatuak eta argitaratuak dituzten
egile garaikide espainiarren
Antzerki-Poetikako Zikloa_n
parte hartzeko proiektuen deialdia

Erriberriko Antzerki Jaialdiak antzezlanen ziklo bat eskainiko du, idazle garaikide espainiarren poetika publikoari hurbiltzeko. Hiru emanaldi egingen dira jaialdian zehar Nafarroako konpainia profesionalen eskutik, Tafallako Kulturgunean, Erriberriko Kultur Etxean eta Beireko Ezpeleta jauregiko patioan. Deialdiaren azken helburua da hitza, musika eta poesia, azken batean antzerkia, ikusle guztien gozamerako eta, bidenabar, espazioak eta nafar ekoizpenak sustatzeko.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatu eta deituko du ziklo hau, betiere Covid-19ak ezarritako egungo egoerak Erriberriko 2021eko jaialdia egitea ahalbidetzen badu. Ezin bada egin, deialdia eta horrek dakarren guztia bertan behera geldituko da.

Ziklo hau antolatzeko, Jaialdiak parte hartzeko proposamenak bidaltzeko gonbita egiten die interesa duten Foru Komunitateko konpainia profesional guztiei, honako betekizun eta baldintza hauen arabera:

- 1. Nafarroako arte eszenikoen konpainia profesionalak aurkezten ahalko dira**, eta halakotzat hartuko dira jarduera ekonomiko nagusia arte eszenikoekin lotua duten enpresa, hala jaso baitago dagokion Ekonomia-jardueren gaineko zergan. Forma juridikoa edozein izanik ere, jarduera eta auzotasuna edo helbidea Nafarroako Foru Komunitatean behar dute izan.
- 2. Antzezlanek 1975 eta 2020 artean argitaratutako Espainiako egile garaikideenak izan beharko dute**, kontuan hartu gabe estreinatu diren ala ez.
- 3. Antzezlanen hartzaileak mota guztietako jendea izan daiteke**: familiak, gazteak edo helduak. Obra zer publiko motari zuzenduta dagoen adierazi behar da.
- 4. Testuak antzeztuko dira idatzita dauden hizkuntzan**, edo euskarara edo gaztelaniara itzulita.
- 5. Antzezlan bakoitzak 20 eta 30 minutu bitarteko iraupena** izanen du.
- 6. Proiektua** posta elektronikoaren bidez bidaliko da **programasydifusion@navarra.es**, helbidera, gaian honako hau adieraziz: **Convocatoria Ciclo Poética Teatral 2021**.
Proiektua PDF artxibategi erantsian aurkeztu beharko da eta konpainiaren arduradunak sinatu beharko du, adieraziz izen-deiturak, telefonoa eta helbide elektronikoa. Halaber, proiektua aurkezten duen konpainiaren edo profesionalaren EJZren kopia bidaliko da.



Erriberriko Antzerki Jaialdia 2021

7. Proiektuarekin batera **dokumentazio hau aurkeztuko da:**

- Egilearen eta aukeratutako lanaren aurkezpen orokor laburra.
- Zuzendariaren oharra eta jaialdian aurkezteko eszenaratze proposamena
- Talde artistikoaren osaera (zuzendaria eta aktore zerrenda)
- Eszenografiaren deskribapena, baita proiektuaren ekoizpenerako garrantzitsuak diren beste elementu batzuen ere.

Proiektua hautatzen bada, aurkezten duen konpainiak edo profesionalak talde artistikoa eta antzezpenerako beharrezkoa den eszenografia ekarriko ditu.

8. **Konpainia bakoitzak lan bat** aurkezten ahalko du gehienez.

9. **Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 30eko 14:00etan** bukatuko da.

10. **Gehienez ere lau proiektu hautatuko dira**, eta horiek Erriberriko Antzerki Jaialdiaren programazio ofizialean sartuko dira.

11. **Batzorde batek hautatuko ditu parte hartuko duten proiektuak. Batzorde horretako burua Jaialdiko zuzendari artistikoa izanen da** eta honako hauek kide izanen ditu:

- Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, Lorenzo García Echegoyen
- Programa Artistikoen eta Hedapenaren Ataleko burua, Marisol Martínez Caspe
- Foru Komunitateko arte eszenikoen arloan entzute handikoak diren bi aditu
- Idazkaria: Kultur Ekintza Zerbitzuko goi mailako teknikari bat.

Batzordeak proiektuen egokitasuna baloratuko du irizpide hauen arabera:

- Testuaren kalitatea eta proiektua deialdiaren xedearekin, helburuarekin eta eremuarekin bat etortzea.
- Proposatutako produkzioaren eszenaratzeko egokitasuna
- Talde artistikoaren eta talde teknikoaren egokitasuna

12. **Emaitza 2021eko maiatzaren 30a baino lehen jakinaraziko da.**

13. Jaialdian zehar, **aukeratutako lan bakoitzaren hiru funtzio antzeztuko dira**; aurrerago zehaztuko dugu data.

Konpainiak, guztira, 3.000 euroko ordainsaria jasoko du (zergak barne).

14. **Ordainketa emanaldiak bukatu ondoren egingen da**, fakturak aurkeztuta.

15. **Konpainiak kontserbatuko ditu bidalitako proiektuaren gaineko eskubide guztiak** eta, bere lana hautatzen badute, Erriberriko Antzerki Jaialdiari lagako dizkio proposamenaren ordezkariak eskubideak, jaialdiak irauten duen bitartean, baita jaialdia sustatzeko, hedatzeko eta artxibatzeke egiten ahal diren irudien eskubideak ere.

16. **Hautatutako konpainiek konpromisoa hartzen duteparte hartzeko** Erriberriko Antzerki Jaialdiak **Antzerki-poetikaren Zikloa** sustatzeko antolatzen dituen jardueretan.



Harremanetarako:

Amalia Jiménez Atienza

Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Ataleko goi mailako teknikaria

Tel. 848 42 46 86

Helbide elektronikoa: ajimenea@navarra.es; difusion@navarra.es

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an.